

LABORATEGIKO TEKNIKAK (BATXILERGOA 1)

DEPARTAMENTUA	MINTEGIA: FISIKA-KIMIKA
ZERTARAKO	Fisika eta kimikaren alde praktikoa lantzeko
ZER IKASIKO DUZU	<p>1.-Lan zientifikoaren testuinguruan laborategiko lanaren garrantzia baloratzea eta laborategiko oinarritzko materiala eta tresneria era egokian erabiltzea.</p> <p>2.-Laborategiko oinarritzko teknikak, eta baita lan egiterakoan kontuan hartu behar diren garbitasun ,ordena, segurtasun eta higiene arauak ere ezagutzea eta erabiltzea.</p> <p>3- Problemak identifikatzea, planteatzea eta konpontzea, ikerketa txikiak egitea</p>
METODOLOGIA	<p>Laborategian bi motatako lan praktikoa planteatzen dira ikasturtean zehar.</p> <p>1) Ohiko lan praktikoa,: Lan praktikoa egiteko, argibideak (behar den materialaren zerrenda, jarraitu behar den prozedura, segurtasun-arauak, etab) emango dira. Lan praktikoa bukatu ondoren,ikasleek egindakoari buruzko bestelako jarduerak egin beharko dituzte(grafikoak edota kalkuluak egin, galderei erantzun...). Azkenik aipatutako guzti hori koadernora pasa behar dute, gidoi gisa txukun eta atal guztiak adieraziz.</p> <p>2) Ikerketa txiki gisa planteatutako lanak. Kasu honetan lan praktikoa egiteak lan zientifikoaren oinarritzko ezaugarrietara hurbiltzea eskatuko du, hau da: e</p> <p>2-1.Egoera problematikoen planteamendua: 2-2.Hipotesiak proposatu: 2-3.Lan praktikoen diseinua edo planifikazioa: 2-4.Eraitzen tratamendua eta interpretazioa: 2-5.Lortutako ondorioak kontuan hartuko dira.</p> <p>Azkenik, komunikazioari behar den garrantzia emateko asmoz, egindako ikerketaren memoria (txostena) eskatuko da. Laborategiako lana bi laguneko talde txikietan antolatzen da, irakaslearen gidaritzapean jarduerak ikerketa-ekipoen moduan lantzen dituzten taldeetan, horrek ezagupenen eraikuntza bultzatutako duelakoan</p>
EBALUAZIOA	<p>Hiru atal desberdin kontutan hartuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturtean zehar egiten diren koadernoko txostenak baloratuko da. - Egunerokotasunean laborategian izaten den jarrera. - Ebaluazio bakoitzean egiten den idatzizko froga bat.
OHARRAK	